

ESPAINIAKO ESTATUKO JARDUEREN TXOSTENA 2025



Brigadas
Internacionales
de Paz



AURKIBIDEA

NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI)	3
GURE PRINTZIPIOAK	5
PBI ESPAINIAKO ESTATUAN	8
ARDATZ ESTRATEGIKOAK	11
2025EAN EGINDAKO JARDUERAK	17
2025ean lagundutako erakunde defendatzaileak	17
Eragin politikoa	24
Sentsibilizazioa eta hezkuntza	29
Antolakuntza indartzea	34
Komunikazioa	36
SAREETAN ETA PLATAFORMETAN PARTE HARTZEA	42
LEKUAN BERTAN	44
2025 ZENBAKITAN	45
PARTE HARTU	50
HARREMANETARAKO	53



NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI)

Duela 45 urte, 1981ean, nazioarteko aktibista batzuk bakearen, nazioarteko elkartasunaren eta indarkeriarik gabeko ekintzaren aldeko mugimendu bat sortzeko helburuz bildu ziren. Mundu osoko indarkeriarik gabeko aktibismoan inspiratuta, **Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)** izeneko taldea sortu zuten, eta gatazkan dauden gizartearen eraldaketa baketsuan laguntzea ezarri zuten helburu gisa, elkarrizketaren bitartez eta gisa eskubideak errespetatuz.

Sortu zenetik, giza eskubideak defendatzeagatik arrisku egoeran dauden pertsonen, erakundeen eta komunitateen babes, laguntza eta aintzatespena ematea izan da PBIren misioa. Horretarako, nazioarteko bidelaguntzan aitzindari den erakunde horrek **babes integraleko** estrategia bat garatu du, honako hauetan oinarrituta:

- Pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileei bidelaguntza fisikoa ematea, eta, horretarako, lekuan bertan brigadistak etengabe mantentzea.
- Bidelaguntza politikoa ematea, maila guztietan (tokian, estatuan eta nazioartean) eragiteko lanaren bitartez, eta gizarte zibileko eragileen eta abokatuen elkargoen arteko sareak antolatzea.



- Antolaketa indartzea, babesari eta gizarte-ehuna leheneratzeari buruzko tailerren bitartez.
- Pertsona eta erakunde defendatzaileen lana nabarmentzea, komunikazio, sentsibilizazio eta hezkuntza lanaren bitartez.

Urte horietan zehar, PBIk erakutsi du bidelaguntza eta nazioarteko behaketa tresna baliagarriak direla giza eskubideen urraketak ekiditeko eta eskubideak sustatzen eta babesten dituzten pertsonen eta kolektiboen lan-eremua zabaltzeko.

Gaur egun, PBIk zortzi talde ditu honako herrialde hauetan:

Kolonbia, Guatemala, Honduras, Mexiko, Kenya, Indonesia, Nepal eta Nikaragua (azken hori Costa Rican). Gainera, Ipar Amerikan, Australian eta Europan dauden 14 erakundeek bidelaguntza ematen diete talde horiei, eta segurtasun gertakarien edo arrisku egoeren aurrean erreakzionatuko duen nazioarteko laguntza-sarea indartzen dute. Talde guztiek, hau da, lekuan bertan lan egiten dutenek zein talde nazionalak osatzen dute PBIk nazioartean ordezkatzeko duen sare global hori. **Espainiako Estatuko Nazioarteko Bake Brigadak (PBI-EE)** 14 talde nazional horietako bat da.



GURE PRINTZPIOAK

PBIk bakerako eremuak zabaltzeko lan egiten du, erakundearen babes integraleko lana gidatzen duten printzipio hauetan oinarrituta:

Indarkeriarik ez

PBIren ustez, bake iraunkorra eta gatazken irtenbide iraunkorrak ezin dira indarkeriaren bitartez lortu. Hortaz, indarkeria oro gaitzesten dugu, jatorria edozein dela ere. Gure helburua, bada, gizarte baketsuak eraikitzeko prozesuak babestea da, modu demokratikoan lan egiten duten taldeen arteko lankidetzaz bultzatuz, eta talde horiek gatazkei irtenbide politikoak eman diezaieten sustatuz, indarkeriarik gabeko estrategien bitartez.

Alderdikeriari ez

Nazioarteko indar eta hirugarren alderdi gisa, PBIk modu independentean eta alderdikeriari gabe jarduten du. Alderdikeriari ezak ez du esan nahi erakundea neutrala edo pasiboa denik bidegabekeriei eta giza eskubideen, askatasun pertsonalaren eta



banakako askatasunaren urraketei aurre egitean. Aitzitik, erabat konprometituta gaude balio horiekin eta indarkeria fisikoaren zein estrukturalaren aurkako borrokarekin, bake iraunkorra ezartzeko bide gisa. Alderdikeriarik ezaren printzipioak esku ez sartzeko mandatua dakar; laguntzen ditugun erakundeen barne kontuetan esku ez hartzean oinarritzen da gure lana. Horregatik, giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan dauden pertsona eta kolektibo horiek hala eskatzen badigute bakarrik laguntzen dugu.

Nazioarteko izaera

PBI izaera internazionala duen erakunde globala da, eta herri guztien autonomia eta autodeterminazio eskubideak errespetatzen ditu. Nazioarteko erkidegoak gatazken eta krisien inguruan dituen kezkak ordezkatzeko ditugu; izan ere, gatazka eta krisi horiek pertsona guztiengan eragiten dute, eta bakea guztion onerako da.

Horizontaltasuna

PBIren identitatea eta lana, bada, antolaketa-egitura ez-hierarkikoetan eta biltzar bidez eta adostasunez erabakitzekeo prozesuetan oinarritzen dira; eta garrantzia ematen diete harremanei eta prozesuei, eta ez soilik emaitzei.



HEALTHY FOOD
CONFIDENCE TRAINING

ONE ZOLA
99

PEACE BRIGADES
INTERNATIONAL
pbi



PBI ESPAINIAKO ESTATUAN

PBI-EE 1987an sortu zen, lekuan bertan lan egiten duten PBIren nazioarteko erakundeei laguntza emateko helburuz. Orduz geroztik, erakundeak honako arlo hauetan lan egin du: sentsibilizazioa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza, eragin politikoa, komunikazioa, laguntza-sareak sortzea, lekuan bertan dauden boluntarioak prestatzea eta indartzea, eta bertan lan egiten jarraitzeko funtsak biltzea.


Gaur egun, PBI-EEK Espainiako Estatuko lurralde hauetan lan egiten du: **Andaluzia, Kantabria, Katalunia, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa, Euskadi, Extremadura, Madril eta Nafarroa.**

Gainera, PBI-EEK estatu-mailako bulego bat du eguneroko lana eta Biltzarraren mandatua betetzeko, erabaki operatiboak hartzeko, eta PBIren nazioarteko proiektuekin eta egiturarekin harremana mantentzeko. Aldi berean, biltzarreko hainbat kidek osatutako batzorde batek aholku ematen dio bulegoari gai garrantzitsuen inguruan. Boluntarioen taldeek eta tokiko taldeek PBIren oinarri aktibista osatzen dute. Hura da, izan ere, erakundearen lana sostengatzen duen oinarria.



2025ean, honako hauek osatu dute PBI-EEren taldea:

- **Estatuko bulegoa**, 6 lagunek osatua (4 emakume eta 2 gizon)
 - Estatuko koordinatzailea.
 - Administrazio eta finantza arduraduna.
 - Eragineko arduraduna.
 - Sentsibilizazioko arduraduna.
 - Euskadiko lurralde ordezkaria.
 - Proiektu-teknikaria Katalunian.
- **Talde nazionalaren** batzordea, lau lagunek osatua (2 emakume eta 2 gizon).
- 30 lagunek baino gehiagok **boluntario** gisa parte hartu dute (batzarrak, batzordea, lantaldeak, ekitaldiak, biretan defendatzaileak laguntzea).
- 57 **bazkide** (29 emakume eta 28 gizon).
- **Estatuko Zuzendaritza Batzordea**, lau lagunek osatua (3 emakume eta gizon bat). Kide horiek Lehendakari, Lehendakariorde, Diruzain eta Idazkari karguak betetzen dituzte.



Nazioarteko PBI bezalaxe, PBI-EE modu horizontalean eta biltzar bidez antolatzen da, eta erabakiak adostasunez hartzen dira. **Estatuko Biltzarra** da gobernantza-organo gorena, eta sei hilean behin batzartzen da. Topaketa eremu horretan, erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren erabaki estrategikoak hartzen dira, eta, gainera, elkartzeko, partekatzeko eta artikulatzeko une garrantzitsu bat da Espainiako Estatuko lurraldeetan PBIren gizarte-ehuna osatzen duten lagunentzat.

2025eko ekainean eta abenduan, sei hilean behingo batzarrak egin genituen, online formatuan.

Lehenengoan, erakundearen kontuen egoera eta bigarren seihilekorako plangintza operatiboa eta administratiboa landu genituen. Abenduan egindako hiru saioetan, antolakuntza egiturako modalitateei buruz eztabaidatu genuen, 2026rako aurreikusitako diru-sarrerak eta adostutako estrategia kontuan hartuta. Halaber, aurrekontuaren banaketa aztertu genuen eta PBIren mundu mailako proiektio estrategikoari buruz aritu ginene.



***PBIk gure lurraldea
eta gure bizitzak
defendatzen
jarraitzeko aukera
eman digu.***



Sandra Calel,
Unión Verapacense
de Organizaciones Campesinas
(UVOC).
Guatemala

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

PBI-EEren 2024-2026 Plan Estrategikoaren ildotik, 2025eko lana honako ildo estrategiko hauetan oinarritu da:

Lurrerako eta lurralderako eskubidea. Justizia ekosoziala

2024an zehar hil dituzten defendatzaileen heren bat baino gehiagok lurra, lurraldea, ingurumena eta herri indigenen eskubideak defendatzen zituzten. Datu larri horren atzean, bada, larrialdi ekosozialeko testuinguru globala dugu, eta, horrek hainbat adierazpen ditu, hala nola klima-aldaketaren ondorioak, baliabide energetikoak eta materialak agortzea, edota bioaniztasuna galtzea. Gainera, eremuak ixtean eta lurraldea eta natura defendatzen duten horiek zapaltzean, arriskuan jartzen dute gizarteak arlo ekosozialeko erronka horiei aurre egiteko duen gaitasuna; izan ere, pertsona eta erakunde defendatzaileek funtsezko rola dute bizimodu bidezkoak eta iraunkorrak lortzeko eginkizunean.



“

***PBIri esker, nire
profila igo dut...
eta eragiteko
nazioarteko foroetara
sartzeko aukera dut
Nikaraguan gertatzen
diren giza eskubideen
urraketak salatzen,
berriz ahaztuak izan
ez daitezzen***

”

Fernanda Martínez,
Red de Mujeres Pinoleras.
Nikaragua (UVOC).

Eremu zibikoa ixtea eta kriminalizazioa

Munduan nagusi diren erronken artean gizarte zibilari eremuak ixteko joera eta kriminalizazio prozesuak ditugu. Gizarte zibilak funtsezko rola du giza eskubideen defentsan eta demokraziaren, berdintasunaren, justiziaren eta bakearen sustapenean. Hala ere, mundu mailan, eremu horiek gero eta gehiago ixten ari dira, eta giza eskubideen defendatzaileak erreprimitzen dituzte, beren lana oztopatzen eta gelditzen. Honako hauek dira errepresio-modu ohikoenak: difamazioak, jazarpena, estigmatizazioa, jazarpen judiziala, mehatxuak, erasoak eta kriminalizazio fisikoko, legaleko eta sozialeko beste modu batzuk. Egoera global horretan, funtsezkoa da gizarte zibilarentzat eremuak irekitzea eta giza eskubideen defendatzaileak babestea






PBIren bidelaguntza eta babesa funtsezkoa eta eztabaidaezina da ARCAHrentzat. Oso eskertuta gaude PBIrekin, hain zuzen ere, IACHRn eragiteko egin duten lanagatik eta erakundearen segurtasun gidaliburua egiteko eman diguten laguntzagatik. PBIk beste eremu batzuetara eramaten du gure hitza, eta eskubideen kontrako diskurtsoei aurre egiten die



Christopher Castillo,
ARCAH. Honduras

Enpresak eta giza eskubideak

Korporazio handiak giza eskubideen urraketen atzean izan ohi dira, eta beren jarduerak ondorio ekosozialak izaten dituzte komunitateetan. Hortaz, ezinbestekoa da jarduera horiek pertsonen eta komunitateen duintasuna, eskubideak eta bizimoduak arriskuan ez jartzea. Interes ekonomiko eta geopolitiko handiak daudenez, pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileek, maiz, eraso larriak jasate dituzte, eta arrisku handiko egoeran izaten dira. Pertsona eta komunitate horiek babestea ezinbestekoa da giza eskubideen errespetua sustatzeko eta bizitzaren iraunkortasunari lehentasuna emateko, enpresen irabazien gaineratik. Hortaz, premiazkoa da egoera ezagutzera ematea eta Estatuari arau sendoak, eraginkorrak eta lotesleak betearaz ditzaten eskatzea. Arau horiek bermatu behar dute enpresek, bere operazioetan, giza eskubideak errespetatzen dituztela.





“

***Diskriminaziorik,
indarkeriarik edo
gorroto deliturik
gabeko mundu bat
dut amets. Genero
Identitatearen Legea
onartu duen mundu
bat, trans pertsonen
izena aldatzeko aukera
ematen diena. Bakean
bizitzeko mundu bat***

”

Jlo Córdoba,
Coordinadora de Muñecas- Arcoíris.
Erakundeko koordinatzailea. Honduras

Indarkeria diferentziala arrazoi interseksionalengatik

Pertsona arrazializatuek, sexu eta generoko disidenteeek eta emakumeek jasaten dituzten indarkerien interseksionalitateak argi erakusten du premiazkoa dela pertsona horiek jasaten dituzten arrisku sistemikoak lantzea. LGTBIQA+ pertsonen askotariko diskriminazioak eta indarkeriak pairatzen dituzte, hala nola aintzatespen legal eta sozialik eza, diskriminazioa lanean eta eremu publikoan, eta erasoak eta gorroto krimenak. Emakumeek, binarioak ez diren pertsonen eta generoko disidenteen, bereziki, zapalkuntza bikoitza jasaten dute beren generoagatik eta sexu-orientazioagatik, eta, hala, diskriminazioa eta indarkeria





***PBIk Kolonbian
duen presentziaren
eta ematen duen
laguntzaren efektu
nabarmenez gain,
PBIren babesak
ongizate emozionala
eta psikologikoa dakar***



Reinaldo Villalba Vargas,
Colectivo de Abogados José Alvear
Restrepo (CAJAR). Kolonbia

matxista pairatzen dituzte. Horrez gain, arrazializatuak eta klase herrikoietakoak badira, indarkeriak ugaritu egiten dira. Testuinguru horren aurrean, emakumeen kolektiboek eta erakunde feministek eskubideak defendatzeko estrategiak eta ekintzak burutzen dituzte. Defendatzaileek egunero egiten duten lanaren oinarritzko ezaugarrien artean, honako hauek aurkitzen ditugu: antolaketa gaitasuna, elkartasuneko eta elkarri laguntzeko estrategiak, beren komunitateetan eta erakundeetan gogoz parte hartzea, bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako alternatiben aldeko jarrera, eta babes feministako eta autozaintzako estrategiak.

Zigorgabetasunaren aurkako borroka

Zigorgabetasuna handia izan ohi da PBIk laguntza eta behaketa lana egiten duen herrialdeetan. Testuinguru askotan, kasuen % 97koa ere izaten da. Oso kontu larria da, giza eskubideen urraketak egiten jarraitzeko giroa ezartzen duelako. Guk memoria historikoa leheneratzeko lan egiten duten erakundeei eta komunitateei laguntzen diegu. Horiek, egiarako eskubidea bermatu aldera, gertatutakoa argitu nahi dute, baita gertatutakoari buruzko narratiba berregin eta zaindu ere, gaur egungo testuingurua ulertu ahal izateko. Halaber, krimenak jasan dituzten komunitateei ere laguntzen diegu. Komunitate horiek justizia lortzeko eta zigorgabetasunari aurre egiteko lan egiten dute, eta eskatu egiten dituzte, besteak beste, ikerketa inpartzialak, epaileen independentzia, prozesuak behar duen errespetua, eta giza eskubideen urraketengatik kontuak ematea.





2025EAN EGINDAKO JARDUERAK

2025ean lagundutako erakunde defendatzaileak

PBI-EEK pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileak babesten laguntzen du, honako jarduera hauen bitartez: eragin politikoa, sareak artikulatzea, sentsibilizazioa, hezkuntza eta komunikazioa. Lan-ildo horietan, PBIko taldeek lekuan bertan egiten duten babes-lana nazioarteko ekintzen bitartez osatzen dugu .

2025ean, **nazioarteko bost bira** lagundu ditugu. Horietan, **giza eskubideen zortzi defendatzaile** izan dira, Latinoamerikatik (Kolonbia eta Guatemala) eta Afrikatik (Kenya) etorriak. Gure babes-lanean ikuspegi feminista interseksionala txertatzeko estrategiarekin bat, biretan parte hartu duten defendatzaileen % 75 emakumeak izan dira. Halaber, bira horietan, erakunde indigena eta nekazarien eta erakunde feministen lana nabarmendu dugu. Erakunde defendatzaile horiek gure lurraldera ekarri, bidelaguntza berezia eman dugu honako kasu hauetan:



KOLONBIA: bakearen eraikuntza lurraldeetatik

Otsailean, **Comisión Intereclesial de Justicia y Paz (JyP)** batzordearekin batera, bira bat egin genuen **Euskal Herrian, Katalunian** eta **Madriren**, lurraldeetako bake-proposamenak aintzat hartzeko, enpresa-megaproiektuen esparruko giza eskubideen urraketak salatzeke eta Kolonbiako bake-politikan gizarte zibilak parte hartzearen garrantzia nabarmentzeko. PBI-EEren 2024-2026 Plan Estrategikoaren ildotik, gure 2025eko lana honako ildo estrategiko hauetara bideratu da.

Milbia Díaz,
Comisión Intereclesial de Justicia y Paz (JyP). Kolonbia.

Erakunde horrek komunitate eta erakunde indigenei, afrikar jatorrikoei eta mestizoei bidelaguntza ematen die gatazkak eta indarkeria dauden eskualdeetan. Hala, estatuaren eta eragile pribatuen aurrean eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, zibilak eta politikoak exijitzen laguntzen die. Giza eskubideen urraketan biktimen eta erantzuleen artean –eta, oro har, gatazkaren alderdi guztien artean– elkarrizketa eta adiskidetzea errazteko jarduerak egiten ditu, eta indarkeria ez errepikatzeke bermeak sustatzen ditu.





Nazioarteko hainbat erakunderekin batera koordinatutako bira europar baten esparruan, urrian bira bat antolatu genuen **Euskal Herrian, San José de Apartadóko Bake Komunitatearekin**. Hura erreferente internazionala da bakea eraikitzeko erresistentzia komunitario ez-biolentoan; baina mehatxu handiak jasaten ditu, hura babesteko hainbat neurri onartu badira ere.

Arley Tuberquia eta Ledis Arteaga,
San José de Apartadóko Bake Komunitatea. Kolonbia.

San José de Apartadóko Bake Komunitatea Antioquiako Urabá eskualdean sortu zen 1997an, indarkeriako, lekualdatze behartuko eta buruzagien hilketako testuinguru batean. Estigmatizazioa, mehatxuak eta difamazioak jasaten jarraitzen badute ere, Bake Komunitateak nolabaiteko disuasioa lortu du eragile armatuen aurrean, proiektuak nazioartean duen legimitateari esker. 2025eko martxoaren 23an, Komunitateak 28 urte bete zituen erresistentzia baketsuan, eta, gaur egun, komunitate-bizitzako eredu inspiratzailea eta alternatiboa izaten jarraitzen du.



GUATEMALA: lurraldearen eta herri indigenen eskubideen defentsa

Maiatzean, **Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC)** erakundea eta **San Francisco Quezaltepeque komunitate indigena** lagundu genituen eta Valentzian, Periferias del món taldearekin batera antolatutako biran. Birako ekintzak Guatemalan dauden gatazka hauetan zentratu ziren: lurra lortzea, lurren titulazioaren inguruan dagoen ziurtasun juridikorik eza, meatzaritzako eta energia hidroelektrikoko megaproiektuen inplementazioa eta lurraren eta komunitate indigenen eta nekazarien lurraldearen defendatzaileen kriminalizazioa.

Sandra Calel,
Unión Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC).
Guatemala.

367 komunitatek (50.000 familia inguruk) osatutako erakundea da; komunitate horietako kideen % 98 indigenak dira, hain zuzen ere, kektxi, pokomtxi eta atxi herrietakoak. Beste jarduera batzuen artean, erakundeak lurrak legeztatzeke aholkularitza juridikoa ematen die komunitate askori, lurrerako eskubidea defendatzeke prozesuetan laguntzen die, eta elkarrizketa-prozesuetan parte hartzen du, nekazaritzako gatazkei irtenbideak aurkitzeke itxaropenarekin.



Marvin Nájera,
San Francisco Quezaltepequeko komunitate indigena. Guatemala.

1805era bitartean San Francisco Quezaltepequeko komunaren eta bertakoen izenean erositako 243 zalditeria. Izan ere, udalak ez die lursail horietako gehienen titulartasuna onartzen, eta, beraz, arbasoen lur hori berreskuratzeko borrokatzen ari dira. Gainera, beren lurraldea erauzketa-proiektuen aurrean defendatzen dute, batez ere meatzaritzako proiektuen aurrean.

Azaroan, Valentziar Herrian, Perfièries de món taldearekin batera, bira bat antolatu genuen **Consejo Indígena Maya Ch'orti' de Olopa** Chiquimula kontseiluarekin. Biraren helburua, bada, meatzaritza estraktibismoaren aurrean lurraldea defendatzeko eta adierazpen askatasuna babesteko borroka ezagutzera ematea izan zen.



Doña Carmelita Canán,
Consejo Indígena Maya Ch'orti' de Olopa Chiquimula. Guatemala.

Kontseiluak honako hauen alde borrokatzen du: komunitate indigenen aintzatespena, beren espiritualtasuna berreskuratzea, beren lurraldearen defentsa, eta meatze-proiektuak sartu aurretik kontsulta askea eta informatua egitea. Gainera, meatzaritzak komunitateetako biztanleen osasunean dituen inpaktu negatiboak minimizatu nahi dituzte, basoak legez kanpo mozten dituztela salatzen ari dira, eta beren komunitateetan genero-indarkeriaren aurka borrokatzen dute.

Norma Sancir,
kazetari komunitarioa. Guatemala.

Maia kaktxikel herriko kazetari komunitarioa da, eta txorti herriaren kontseilu indigenaren borrokan laguntzen du. Urteak daramatza kazetari eta komunikatzaile komunitario gisa lan egiten. 2014an atxilotu eta legez kanpo espetxeratu zuten, txorti lurraldean protesta baketsu bat egin ostean. Hamar urtez borrokatu ondoren, iaz, azkenik, epai historiko bat lortu zuen. Epaiak atxiloketan parte hartu zuten polizia-ofizialak kondenatu zituen, eta atxiloketa legez kontrakoa izan zela xedatu zuen. Halaber, prentsa-askatasunean eta kazetaritza komunitarioan trebatzera behartzen zuen Guatemalako polizia, genero-ikuspegiarekin.



KENYA: babes feminista eta laguntza psikosoziala

Maiatzean, **Inuka Kenya Ni Sisi!** mugimenduaren bira bat lagundu ahal izan genuen Euskal Herrian. Biraren fokua, besteak beste, emakumeen aurkako indarkerian eta emakume defendatzaileen babes-mekanismo espezifikoetan kokatzen zen, indarkeriatik bizirik atera direnentzako laguntza psikosozialari arreta berezia eskainiz.

Salima Macharia, Inuka Kenya Ni Sisi. Kenya.

Herritarrek esparru publikoan parte har dezaten helburu duen erakundea da, beren duintasuna bermatzeko. Hala, bere lana herrialde eta eskualde baketsu, batu eta ongi gobernatu baten ikuspegian oinarritzen da. Elkarri lotutako hiru zutabe estrategikoren inguruan antolatzen ditu bere ahaleginak: lidergoa eta gobernantza eraldatzea bilatzen duten narratibak sortzea, giza duintasuna bermatzeko nortasun kolektibo positibo eta erresilientea baliatzea, eta herritartasun aktiboko gizarte-mugimendua sortzea.





Eragin politikoa

Nazioarteko presentzia erabilgarria izan dadin eta disuasio-efektua izan ezan, funtsezkoa da giza eskubideen tokiko urraketak nazioartean ezagutzera ematea. Eginkizun horretan, PBIren babes integraleko ikuspegiaren oinarri nagusietako bat da eragiteko lana. Birak eta batzarrak antolatzen ditugu, eta informazio eguneratua partekatzen dugu instituzioekin, eragile politikoekin, abokatuen elkargoekin eta gizarte zibileko erakundeekin. Horiek guztiek PBI-EEren laguntza-sarearen parte dira, eta, alerta bat egotekotan edo laguntzen ditugun pertsonen edo erakundeen aurkako eraso edo mehatxu baten kasuan, erantzun artikulatua eta irmoa eskaintzen dute nazioarteko erkidegotik.





Eragiteko batzarrak

2025ean zehar, laguntzen ditugun erakunde defendatzaileentzat eremuak zabaltzeko helburuz, **eragiteko eta sareak artikulatzeko 25 batzar** izan ditugu **Kataluniako, Valentziako Erkidegoko, Euskadiko eta Madrilgo** eragile politiko eta instituzionalekin, gizarte zibileko erakundeekin eta abokatuen elkargoekin.

— 18 batzar tokiko, autonomia mailako eta estatuko **erakunde publiko eta eragile politiko** hauekin: Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia, Diputatuen Kongresua, Eusko Legebiltzarra, Kataluniako Parlamentua, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia, Valentziako Generalitatea, Valentziako Gorteak, Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako Udala, Bilboko Udala.

— 6 batzar Euskadiko, Madrilgo eta Valentziako **gizarte zibileko erakundeekin**.

— Batzar bat Guatemalako **justizia operadoreekin** erbestean, Valentzian, alegia.

HACEMOS CUATRO PETICIONES AL GOBIERNO DE ESPAÑA

- ✓ RECONOCIMIENTO PÚBLICO A LAS PERSONAS DEFENSORAS DEL MEDIOAMBIENTE.
- ✓ MENCIÓN EXPLÍCITA EN LOS DOCUMENTOS DE RESULTADOS DE LA COP28.
- ✓ IMPULSO DE ALIANZA INTERNACIONAL PARA LA INVESTIGACIÓN Y DENUNCIA DE LAS VIOLACIONES CONTRA LAS PERSONAS DEFENSORAS.
- ✓ MEDIDAS PARA PROMOVER LA PROTECCIÓN DE DEFENSORAS DEL MEDIOAMBIENTE A NIVEL NACIONAL E INTERNACIONAL.

Firma y enviaremos esto corto en tu nombre al Ministro para la Transición Ecológica

Correo electrónico obligatorio

Nombre obligatorio

País

Estoy de acuerdo con la **política de privacidad** obligatorio

Al pedir que se reconozca el trabajo de las personas defensoras del medio ambiente en los documentos de resultados de la COP28, el gobierno español debe reconocer el trabajo de las personas defensoras del medio ambiente y promover la investigación y denuncia de las violaciones contra las personas defensoras del medio ambiente a nivel nacional e internacional.



Alertak, aktibazioak eta ekintza parlamentarioak

Tokiko herrialdeen egoeraren jarraipena egitean, **Laguntza Sareari II alerta, eguneraketa eta/edo aktibazio** partekatu dizkiogu, **Kolonbiako, Guatemalako, Hondurasko, Mexikoko, Nikaraguako eta Kenyako** giza eskubideen egoerarekin lotuta. Honako hauek izan dira gure kezka eta gure arreta erakarri duten gai nagusiak:

- Kolonbiako egoera humanitarioa eta gatazka armatuaren jarraipena.
- Komunitate eta erakunde defendatzaileen arrisku-egoeraren larriagotzea, baita Nikaraguan, Kolonbian eta Mexikon defendatzaileen bizitzaren aurkako erasoak eta hilketak ere.
- Justiziarako sarbidea eta zigorgabetasunaren aurkako borroka Mexikon, defendatzaileen desagertze behartuari lotuta.
- Giza eskubideen urraketa Kolonbiako eta Hondurasko enpresa-megaproiektuen testuinguruan
- Justizia sistemaren narriadura Guatemalan.
- Guatemalako indigenen eta nekazarien komunitateak babestea, lurra eskuratzeko eta antzinako lurraldeen aintzatespena lortzeko borrokan.



Eragin-lanaren barruan, pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestera bideratutako hainbat ekintza bultzatu dira: mehatxuen eta erasoen aurrean premiazko erantzunak, ekintza parlamentarioak, adierazpen instituzionalak, komunikatuak, aldebiko gutunak eta komunikazioak, etab.

Honako hauek izan dira 2025eko **ekintzarik nabarmenak**:

- Kolonbiako Bake Prozesuari Laguntzeko Parlamentu arteko Taldeak maiatzean Diputatuen Kongresuan egindako IV. Bileraren ondoren, 16 legebiltzarkidek azken adierazpen bat sinatu zuten. Horretan, besteak beste, komunitate eta erakunde defendatzaileek lurraldeetatik bultzatzen ari diren bake-ekimenak aintzat hartzen dituzte, eta ekimen horiek bake-prozesuan sartzeko deia egiten dute, beren parte-hartze eraginkorraren bidez.
- Belém (Brasil) hirian egindako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen 30. Konferentziaren (COP30) esparruan, hainbat ekintza egin ditugu urtean zehar; hain zuzen ere, Espainiako Gobernuak lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileak diren pertsonak, erakundeak eta komunitateak aintzat hartu eta babes ditzan. Izan ere, defendatzaile horiek klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko funtsezko eragileak dira. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Senatuan galdera parlamentario bat egin da, eta ehunka pertsonaren sinadurak bildu dituen kanpaina egin da.



- Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras (IM-Defensoras) ekimenarekin koordinatuta, ezagutzera eman ditugu “Supervivientes” programaren grabazioaren ondorioz Organización Fraternal Negra Hondureña (OFRANEH) erakundea osatzen duten komunitate garifunen aurka egindako giza eskubideen urraketak. Hala, 90 erakundek baino gehiagok bat egin dute hori salatzeke adierazpen publiko batekin.



Sentsibilizazioa eta hezkuntza

Pertsona eta erakunde defendatzaileen eta biztanleriaren arteko topaketak antolatzea da PBI-EEren jarduera nagusietako bat. Topaketa horiei esker, gizarteak harreman zuzena izan dezake giza eskubideen defentsaren egoerarekin, haren protagonisten eskutik. Horrela, Espainiako Estatuko gizartean kontzientzia kritikoa pizten dugu eta gizarteak giza eskubideen defentsarekin duen konpromisoa sustatzen dugu. Halaber, sentsibilizazio ekintzak antolatzen ditugu giza eskubideen defendatzaileen lana formatu kulturalen bitartez ezagutzera emateko, hala nola argazki erakusketen, zinema zikloen eta antzezlanen bitartez.

Unibertsitate mintegiak eta ekitaldi publikoak

Unibertsitateekiko aliantza PBIren lehentasunezko lan-ildo bat da sentsibilizazioaren arloan. Eremu akademikoetan, eta erakunde defendatzaileekiko harreman zuzenaren bitartez, ikasleen kontzientzia kritikoa eta ikasleek giza eskubideen defentsarekin duten konpromisoa sustatzen saiatzen gara. 2025ean zehar **6 unibertsitate mintegi** egin ditugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin (Donostian) eta Valentziako Unibertsitatearekin.





Gainera, ekitaldi irekiak ere egiten ditugu, hala nola hitzaldiak edo jardunaldiak. Horien helburua da sentsibilizazio jarduerak herritarrei hurbiltzea. 2025ean, **7 ekitaldi publiko** egin ditugu Kantabrian, Euskadin, Valentzian, Bartzelonan eta Madrilan, baita giza eskubideen defentsaren testuinguruari buruzko **2 webinar** ere.

Eremu horietan, giza eskubideekin lotutako hainbat gai landu ditugu, eta Latinoamerikako eta Afrikako erakunde lankideak ere bertan izan dira. Haiek honako gai hauetan jarri dute arreta: lurraren eta lurraldearen eta herri indigenen eskubideen defentsa, eskubideen urraketak megaproiektu korporatiboen testuinguruan, adierazpen askatasuna eta informaziorako eskubidea, sexu eta generoko disidenteen eskubideak, eta sendatzeko, elkarri zaintzeko eta laguntza psikosozialeko estrategiak

Sareak ehuntzeko topaketak

Lagundutako erakunde defendatzaileen eta gure lurraldeetan gai horietan lan egiten duten erakundeen arteko artikulazioa da PBIren babes integraleko estrategiaren lehentasunezko lan-ildoetako bat. Hala, bere helburua topatzeko eremuak sortzea da, giza eskubideen arloko erronkak eta ikaspenak partekatzeko. Halaber, gizarte zibilean laguntza-sare bat sortu nahi du, erasoen eta segurtasun gorabeheren aurrean erantzungo duena. 2025ean



zehar, **sareak artikulatzeko 12 eremu** antolatu ditugu Euskadiko, Madrileko, Valentziako Erkidegoko, Ciudad Realgo eta Bartzelonako gizarte zibileko erakundeekin. Horietan honako gai hauek landu ditugu; lurraren defentsa estraktibismoaren aurrean, komunitate antolakuntza eta gizarte eskubideak, elkartasun internazionalista giza eskubideen urraketan aurrean, eta emakume defendatzaileen garrantzia bizimodu bidezkoak eta iraunkorrak eraikitzeko.

Nabarmentzekoa da Herri Utopien Gidaliburua kolektiboki eraikitzeko prozesua, Euskal Herriko, Latinoamerikako eta Afrikako erakunde defendatzaileekin eta oinarrizko kolektiboekin. Prozesu horretan, online trukerako 2 eremu eta 4 aurkezpen publiko egin dira. Espazio horien helburua izan da garatzen diren lurraldeetatik proiektu zehatzen esperientziak partekatzea.

PBIk parte hartzen duen sare eta plataformekin antolatutako topaketen esparruan, nabarmentzekoak dira Taula per Kolonbiak antolatutako “Política de drogas, DDHH y responsabilidades globales” jardunaldiak eta Taula per Amèrica Central sarearen 2. jardunaldiak, “Retos y oportunidades” izenekoak. Jardunaldi biak Katalunian izan dira.

Urtean zehar, PBI-EEK **elkartrukerako 3 eremu** izan ditu **unibertsitateko erakunde aliatuekin**. Horiek esparru akademikoaren eta giza eskubideen defentsaren arteko topagune gisa sortu ziren, nazioarteko laguntzari buruzko esperientziak eta hausnarketak




partekatzeko aukera eman ziguten. Hala, ikasleei eta irakasleei defendatzaileen errealitatea hurbildu ahal izan genien, eta elkarrizketa kritikoak izan genituen bakearen eraikuntzaren, lurraldearen babesaren eta nazioarteko elkartasunaren eginkizunaren inguruan. Topaketetan, PBIren lanari buruzko erakusketak eta eztabaida parte-hartzaileak uztartu ziren. Hala, unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko zubiak sortzen lagundu genuen, eta hezkuntza-erakundeek sentsibilizazioan, ikerketa konprometituan eta bizitza arrisku-testuinguruetan defendatzen dutenei laguntzeko funtsezko eragile gisa duten konpromisoa indartu zen.

Argazki erakusketak, zinema zikloak eta antzezlanak

2025an zehar, hainbat hiritara eraman dugu **“Desenterrar la memoria. Defender la vida”** erakusketa audiobisuala.

Horretan, memoriaren eta egiaren alde eta zigorgabetasunaren aurka borrokatzen diren Kolonbiako hainbat erakunderen eta komunitateren irudiak eta audioak jasotzen dira. Erakusketak Edu Leonen argazkiak eta Patricia Simónen testuak ditu, eta 2025ean Bilbon eta Cosladan (Madril) izan da. Espero dugu hurrengo urteetan beste hiri batzuetan ere izatea.





“**Vivir defendiendo derechos. 20 relatos gráficos por la defensa de los derechos humanos**” diendo derechos. 20 relatos gráficos por la defensa de los derechos humanos” argazki erakusketak, bestetik, sei herrialde hauetako giza eskubideen defendatzaileen esperientziak jasotzen ditu: Mexiko, Honduras, Guatemala, Kolonia, Mendebaldeko Sahara eta Palestina. 2025ean zehar, Kordobako Monturque herrian izan da. Erakusketarekin batera, “**Sangre de la Tierra**” dokumentala era proiektatu da, Erdialdeko Amerikako hiru lurralde (Mexiko, Honduras eta Guatemala) zentral hidroelektrikoen aurrean garatzen ari diren erresistentziak aurkezten dituena.

Gainera, abenduan, “**Sangre de la tierra**” dokumental horrekin bideo-forum bat egin genuen Iruñeko Gaztediaren Etxean, eta, hura ikusi ondoren, elkarrizketa kritiko eta parte-hartzailea izan genuen bertaratu zirenekin.

Bestalde, 2025eko apirilean, Theatre for Roots taldeak 2019an PBI eta Mundubat erakundeentzat ekoiztiko “**Colombia Es**” antzezlanaren berriz antzeztu du Madrilan. Antzerki garaikideko eta dokumentaleko pieza horrek komunitate indigenen, nekazarien eta afrikar jatorrikoen bake-ekimenak bistaratzen ditu, gatazka armatua eta indarkeria ezaugarri dituen testuinguru batean babesteko estrategia kolektibo gisa. Era berean, hainbat biktimak memoria, justizia, egia eta erreparazioa eskatzeko egiten duten lana erakusten du antzeslanak.





Antzerki-ekoizpenekin jarraituz, abenduaren 13an Madrilen **MujerEres** lana aurkeztu zuten. Emakume Erbesteratuen, Errefuxiatuen eta Migratuen Kolektiboak ICIDekin lankidetzan antolatutako antzezlan horrek izaera sozial eta komunitario sendoa du. Horretan, antzerkia memoriarako, sendatzeko eta salatzekeo tresna gisa erabiltzen da, eta migrazioa, erbestea eta indarkeriak –beren herrialdea uztera eraman dituzten horiek– bizi izan dituzten emakumeen esperientziak taularatzen dira.

Antolakuntza indartzea


PBI erakunde erreferentea da babesaren esparruan, eta ia 45 urteko esperientzia du Hegoalde Globaleko hainbat herrialdetan erakunde defendatzaileei babes- eta segurtasun-estrategiak eskaintzeko prestakuntzak egiten. Azken urteotan, pilatutako esperientzia hori Espainiako Estatuan prestakuntza-prozesuak antolatzeko baliatzen ari da PBI-EE. Bere helburua, hain zuzen ere, gizarte zibileko erakundeek eta gure inguruko gizarte-mugimenduek giza eskubideen alde egiten duten lana hobetzeko tresnak eskaintzea da.

2025ean zehar, **“Ikuspegi feminista dekoloniala duen babesari buruzko prestakuntza eta ikerketa kolektiboko prozesua”** gauzatu dugu. Prozesu horretan, beste erakunde batzuekin batera, geure buruari galdetu diogu ea zer esan nahi duen begirada



koloniala eta interseksionala txertatzeak Euskal Herritik eta beste lurralde batzuetatik defendatzaileak laguntzen dugunontzat. 4 saio birtual eta aurrez aurreko jardunaldi bat (Bilbon) egin dira. Hainbat lurraldetako erakundeekin hitz egin dugu, gure testuinguru, identitate eta pribilegioetatik abiatuta; eta hausnartu egin dugu zer eragin duten mailak eta botereak gure lanean, hain zuzen, pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileak babesteko eta laguntzeko eremuan. Horretarako, funtsezkoa izan da Hegoaldeko epistemologiek eskaintzen dituzten proposamenak eta pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileen esperientziak entzutea, baita gure inguruko lurraldeetan aliatutako erakunde eta kolektiboek hartutako ibilbideak ere.

Bestalde, urrian, **espazioak ixteari buruzko saio birtual bat** egin genuen, hainbat lurraldetako pertsona eta erakunde defendatzaileen arteko topaketa-prozesu baten zati gisa, honako helburu hauekin: errepresio-ereduei buruz hausnartzea, eta modu kolektiboan babes-estrategiak, esperientzia arrakastatsuak eta erakundeen lana espazio seguruetatik indartzeko aukera emango duten ikaskuntzak partekatzea. Saioak bost herrialdetako (Belgika, Kolonia, Guatemala, Espainiako Estatu eta Kenya) **hainbat kazetari eta gizarte-komunikatzaile** izan zituen, eta **sare sozialetan difamazioei, estigmatizazioei eta jazarpenari aurre egiteko estrategiak** partekatzera bideratuta egon zen.






Komunikazioa

Giza eskubideen defendatzaileek egiten duten lana nabarmentzea da gure babes integraleko strategiaren lehentasunetako bat. Kasuak ezagutzera emateak –beti arrisku azterketa bat eginez– profila igotzen du, gerta daitezkeen erasoen kostua handitzen du, eta, hala, defendatzaileak babesten laguntzen du. Hortaz, askotariko komunikazio mekanismoak erabiltzen ditugu: txostenak, argitalpenak eta albisteak zabaltzea, kazetariekin eta hedabideekin lan egitea, sare sozialak, eta abarc.

Argitalpenak

Buenaventura ¿Quién asume el coste? Impacto de las economías globales en Colombia PBIk egindako txosten bat da. Horretan, aztertu egin dugu nola eragiten ari den tokiko komunitateen giza eskubideetan eta bizi-baldintzetan Buenaventura –Kolonbiako itsas portu nagusia– ekonomia globalean sartzea, baita horren atzean dauden interes korporatibo transnazionalak ere. Dokumentuak portu-azpiegituren hedapenarekin eta nazioarteko merkataritza-dinamikekin lotutako gizarte- eta ingurumen-arriskuak eta -ondorioak aztertzen ditu. Halaber, nabarmentzen du prozesu horiek lekualdatze behartuak, egiturazko indarkeria eta eskubideak defendatzeko oztopoak eragiten dituztela, batez ere enpresen interesen mesederako. Kontuan izatekoa da enpresa horien artean Espainiarekin lotura duten batzuk daudela. Prozesu horien





inpaktuak, gainera, bereziki gogorak dira Kolonbiako afrikar jatorriko herritarrentzat eta egoera ahulean dauden beste kolektibo batzuentzat. Txostenak testuinguruaren azterketa, lekukotzak eta datu sozio-ekonomikoak uztartzen ditu, globalizazioaren kostuak benetan nork jasaten dituen argitzeko.

Cartografías diversas: Tejiendo Utopías Populares. Defender y cuidar la vida, la tierra, el territorio y la naturaleza, emapa bat

da. Hura 2024an Kolonbiako, Mexikoko, Hondurasko, Guatemalako eta Nikaraguako defendatzaileekin egindako Utopien Herri Biraren emaitza da. Bertan, bada, Abya Yalako eta Euskal Herriko emakumeen* eta kolektiboen arteko elkarrizketak eta elkartrukeak aurkitzen dira. Emakume* baserritar, nekazari, feminista, indigena, ekologista, komunikatzaile eta migratu horiek, bizitzaren, luraren, lurraldearen eta Naturaren alde antolatuta, bere buruari galdetu zioten: Zer nolako arriskuak bizi dituzte Iparralde eta Hegoalde Globaleko emakume defendatzaileek eta aktibistek? Zeintzuk dira erronkak eta autozaintzarako eta zaintza kolektiborako abian jarritako mekanismoak? Zer nolako utopiak irudikatzen dituzte lurralde bakoitzeko emakume defendatzaileek eta aktibistek? Zerk errazten edo zailtzen du zaintza kolektiboa eta aktibismo iraunkorrek abian jartzea?





“Todas somos defensoras” web dokumentala

Aurten ere gogoz lan egin dugu sentsibilizazio-tresna berri bat sortzeko eta zabaltzeko. **Todas somos defensoras** web dokumental interaktiboa da, eta Latinoamerikako –bereziki Guatemalako eta Kolonbiako– lurraldea, memoria eta giza eskubideak defendatzeko borrokei buruzko ikus-entzunezko ibilbide bat egiteko aukera ematen digu. Argazkiaren, bideoaren eta testuen bidez, mehatxu estraktibistei, egiturazko indarkeriei eta eskubide-urraketei aurre egiten dieten komunitate eta pertsona defendatzaileen esperientziak eta erresistentziak ezagutzera ematen ditu plataformak, eta emakume defendatzaileen eginkizuna nabarmentzen du. Hala, giza eskubideak defendatzeko eskubidea eta arrisku handiko testuinguruetan aritzen diren horien babesa sustatzen ditu. ICID eta PBI erakundeek bultzatuta, proiektuak kazetaritzako edukiak, erakusketak eta gizartean eta politikan eragina duten ekintzak uztartzen ditu.

Voces de la Tierra, podcasta

PBIk azken urteotan **Carne Cruda** irratsaioarekin izan duen **Voces de la Tierra** izeneko kolaborazioa podcast-sail bilakatu da. Andrea Aldana kazetariak kontatuta, 4. kapitulutan, lurra, lurraldea, giza eskubideak eta feminismoa defendatzen dituzten emakumeen eta bere erakundeen bizi-istorioei erreparatzen diegu. Lau borroka-istorio dira, Kolonbia, Guatemala, Mexiko eta Nikaraguitik.





- *#1. Colombia. El feminismo llega al campo*
- *#2. México. Un pueblo derrota a la gran minera*
- *#3. Guatemala. Jóvenes indígenas contra el colonialismo*
- *#4. Nicaragua. La lucha desde el exilio*

Giza eskubideen urraketako eta indarkeriako testuinguruen aurrean, defendatzaileek, komunitate indigenek eta afrikar jatorrikoek erresistentzia zibil ez-biolentoko ekintzak, lurraldeko bake-ekimenak eta aurre egiteko tresna kolektiboak erabiltzen dituzte. Horrek, ordea, arrisku handiak dakarzkie. Erakundeek berek eskatuta, PBIk laguntza ematen die, eta, horretarako, indarkeriaren disuasioa helburu duen babes integraleko estrategia bat aplikatzen du. 2025eko apirilaren 30ean emandako **Carne Cruda** saioan horri buruz hitz egin genuen, zuzenean.

Hedabideetan izandako agerpena

Urtean zehar, komunikazio-ekintza ugari egin ditugu hainbat kazetari eta hedabiderek, lagundutako pertsonen, erakundeen eta komunitateen lana eta PBIren babes lana ezagutzera emateko. Horien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:



Prentsa

- **Lajeb Kej: la resistencia del valle Polochic.** En No Ficción, por Gianni Esposito y Marta Saiz (19/03/2025)
- **Las semillas de la memoria achí.** En No Ficción, por Gianni Esposito y Marta Saiz (2/04/2025)
- **Basura y extracción : la amenaza al pueblo maya Poqomam en Guatemala.** En France24, por Gianni Esposito y Marta Saiz (14/04/2025)
- **Qachuu Aloom, Las semillas de la memoria.** En Revista Late, por Gianni Esposito y Marta Saiz (23/06/2025)
- **Chinautla: Basurero, Areneros y el Desplazamiento del pueblo Maya Poqomam.** En Revolve, por Gianni Esposito y Marta Saiz (2/07/2025)
- **Comunidades mayas cho'rti' se enfrentan al extractivismo minero en Guatemala.** En Rebelión, por Enric Llopis (2/12/2025)

Radio/podcast

- **Guatemala. El derecho a la vida y el Territorio.** En Ràdio Klara (28/5/2025)
- **La defensa del Territorio Maya Ch'orti' en Guatemala.** En Ràdio Klara (17/12/2025)
- **Amenazas, acoso y represión: así sobreviven las activistas en África.** En el programa Norte Sur de EITB ((19/12/2025)





- Gainera, **Ondas locales, territorio y derechos humanos: defensoras de la vida construyendo utopías** izeneko irratsaioa egin dugu 97 Irratiarekin batera. Gizarte-komunikazioko ekimena da, eta, aurten emandako bost kapituluetan, giza eskubideen defentsari buruzko hainbat esperientzia hurbildu dizkiegu herritarrei, ikuspegi internazionalista eta feminista batetik.
 - **Comunidades que hacen la paz en Colombia** (25/02/2025)
 - **Nicaragüenses exiliadas, jamás silenciadas** (25/03/2025)
 - **Defensoras de los derechos humanos en Kenia** (07/05/2025)
 - **San José de Apartadó, comunidad de paz** (14/11/2025)
 - **Brigadas Internacionales de Paz, compañeras de derechos humanos** (10/12/2025)



SAREETAN ETA PLATAFORMETAN PARTE HARTZEA

Egiten dugun babes-lana ez litzateke posible izango beste gizarte erakunde, sare eta plataforma batzuekin aliantzak egin gabe. Tokiko, estatuko eta nazioarteko sareetan parte hartzeak aukera ematen digu defendatzaileen segurtasun-egoeraren inguruan egiten dugun lanaren eragina handitzeko.

Espainiako Estatuan, PBIk honako artikulazio-eremu hauetan parte hartzen du:

- Red Defensoras, estatu mailan
- Espacio de Coordinación Estatal de las Plataformas de Solidaridad con Colombia, estatu mailan.
- Taula catala per la Pau i els Drets Humans a Colombia, Katalunian.
- Taula catalana en defensa de los Derechos Humanos y la Paz en Centroamérica, Katalunian.
- LaFede justizia globalaren aldeko erakundearen federazioaren Bake eta indarkeriarik ezaren taldea, Katalunian.





- LaFede justizia globalaren aldeko erakundeen federazioaren Enpresen eta giza eskubideen taldea, Katalunian.
- LaFede justizia globalaren aldeko erakundeen federazioaren Feminismo taldea, Katalunian.
- Kolektiba Colombia, Euskadin.
- Coordinadora Cántabra de ONGDs, Kantabrian.
- Donostiako Udalaren Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Kontseilu Sektoriala, Donostian.

Gainera, nazioartean, PBIk honako sare hauetan parte hartzen du:

- Human Rights and Democracy Network (HRDN) eta Women Human Rights Defenders International Coalition (WHRDIC)
- ProtectDefenders.eu
- EU-LAT Network
- Oficina Internacional de Derechos Humanos – Acción Colombia (OIDHACO)



LEKUAN BERTAN

Nazioarteko elkartasuna mobilizatzea

PBIk Espainiako Estatuko hainbat instituziorekin lan egiten du, batez ere lankidetzaz deszentralizatuaren arlokoekin, haiek lekuan bertan egiten dugun lana lagundu izan baitute historikoki. Izan ere, laguntza horri esker, PBIk giza eskubideen defendatzaileekin lan egiten jarrai dezake aipatutako herrialdeetan, mehatxupearan dauden defendatzaile horiek babesten laguntzen eta haien lanak aurrera jarrai dezan sustatzen.

Eragiteko, sentsibilizazioko eta bistaratzeko lanaz gain, PBI-EEK lekuan bertan lan egiten duten PBIko erakundeei laguntzen die. Izan ere, nazioarteko brigadistak mobilizatzen ditu, eta proiektuak eta programak kudeatzeko lan garrantzitsua egiten du. Lan horri esker, bada, nazioarteko laguntza mantendu ahal izan dugu honako herrialde hauetan:

- **Kolonbia:** pbicolombia.org
- **Guatemala:** pbi-guatemala.org
- **Honduras:** pbi-honduras.org
- **Mexiko:** pbi-mexico.org
- **Nicaragua Costa Rican:** pbi-nicaragua.org
- **Kenya:** pbi-kenya.org





2025 ZENBAKITAN

PBI Espainiako Estatua

DIRU-SARRERAK

Nazioarteko Lankidetzako diru-laguntzak	549.192,95 €
GEHko eta eragiteko diru-laguntzak	288.132,00 €
Beste diru-sarrera batzuk	4.000,00 €
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	802.478,36 €

GASTUAK

Langile gastuak	197.433,60 €
Egiturezko beste gastu batzu	31.320,96 €
Tokiko jardueren exekuzioa	97.059,84 €
Landako proiektuetara bidalitako	476.663,96 €
GASTUAK GUZTIRA	802.478,36 €

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzza

PBI – ESPAINIAKO ESTATUA

Exekuzioa	Proiektuaren izena	Zonaldea	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2023-2025	Caminando juntas: protección integral a mujeres y personas de la disidencia sexual y de género, defensoras de los DDHH en Honduras	Honduras			AECID – Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia
2024-2025	Defender avances para la paz: proteger el espacio de trabajo de las personas, organizaciones y comunidades defensoras de los derechos humanos en Colombia	Kolonia	PBI Kolonia	49.457,67	Donostiako Udala
2025	Defender avances para la paz: proteger el espacio de trabajo de las personas, organizaciones, y comunidades defensoras de derechos humanos en Colombia	Kolonia	PBI Kolonia	29.206,81	Iruñeko Udala
2024-2025	Defender avances para la paz: proteger el espacio de trabajo de las personas, organizaciones y comunidades defensoras de derechos humanos en Colombia	Kolonia	PBI Kolonia	119.828,00	Nafarroako Gobernua
2024-2025	Protección de personas defensoras de derechos humanos en Guatemala	Guatemala	PBI Guatemala	10.000,00	Kordobako Diputazioa
2024-2025	Protección internacional a mujeres defensoras de derechos humanos de Guatemala	Guatemala	PBI Guatemala	57.153,60	Kantabriako Gobernua
2024-2025	Protección integral de personas defensoras de derechos humanos en Honduras	Honduras	PBI Honduras	21.000,00	Gaztela eta Leongo Junta
2025	Defendemos el derecho a defender derechos, la vida y el territorio en México	Mexiko	PBI Mexiko	3.844,98	Santanderreko Udala
2025	Incidencia política para la protección de personas, organizaciones y comunidades defensoras de derechos humanos en África y América Latina	Mexiko, Honduras, Guatemala, Nicaragua, Kolonia y Kenia	PBI Mexiko, PBI Honduras, PBI Guatemala, PBI Nicaragua, PBI Kolonia y PBI Kenia	150.000,00	eLankidetzza – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia
2025-2026	Acompañamiento internacional a Pueblos Indígenas de Guatemala en su defensa del derecho a la propiedad de la tierra, el territorio y los bienes naturales	Guatemala	PBI Guatemala	14.333,08	Kordobako Diputazioa
2025-2026	Acompañamiento internacional a Pueblos Indígenas de Guatemala en su defensa del derecho a la propiedad de la tierra, el territorio y los bienes naturales	Guatemala	PBI Guatemala	45.652,80	Kantabriako Gobernua
2025-2026	Acompañamiento psicosocial a personas defensoras del derecho a la tierra y el medioambiente y de los derechos de las mujeres en Kenia	Kenia	PBI Kenia	119.927,00	Bizkaiko Foru Aldundia



Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

PBI – ESPAINIAKO ESTATUA

Exekuzioa	Proiektuaren izena	Zonaldea	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
	Co-creando utopías desde lo local: comunicación, sensibilización y articulación de redes para la defensa de los derechos humanos	Bilbo		9.562,54	Bilboko Udala
2024-2025	Co-creando: utopías desde lo local: comunicación, sensibilización y articulación de redes para la protección de las mujeres que defienden derechos	Donostia		19.580,38	Donostiako Udala
2024-2026	Defender la vida II: consolidando estrategias con agentes sociales vascos para la protección de mujeres defensoras de DDHH y sus organizaciones.	Euskadi		265.912,43	eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia
2024-2025	Comunicación como herramienta de protección para personas, organizaciones y comunidades defensoras de DDHH en América Latina.	Estatua		7.999,96	Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa. Giza Eskubideen Bulegoa
2024-2025	Todas somos defensoras de derechos humanos: promoción del derecho a defender derechos y protección de personas defensoras (Fase II)	Estatua	Asociación ICID	165.768,00	AECID – Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia
2025	Defender la vida: sensibilización y fortalecimiento organizativo para la protección de las mujeres defensoras de derechos humanos y sus organizaciones desde un enfoque feminista decolonial.	Bilbo		9.440,00	Bilboko Udala
2025-2026	Defender la vida: sensibilización y fortalecimiento organizativo para la protección de las mujeres defensoras de derechos humanos y sus organizaciones desde un enfoque feminista decolonial.	Donostia		19.140,00	Donostiako Udala



PBI Katalunia

DIRU-SARRERAK

SDiru-laguntza publikoa	558.546,09 €
Beste diru-sarrera batzuk	100,00 €
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	558.646,09 €

GASTUAK

Langile gastuak	52.648,96 €
Egiturezko beste gastu batzuk	16.303,57 €
Tokiko jardueren exekuzioa	72.814,14 €
Landako proiektuetara bidalitakoa	416.879,42 €
GASTUAK GUZTIRA	558.646,09 €



Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak

PBI – KATALUNIA

Exekuzioa	Proiektuaren izena	Zonaldea	Erakunde kideak	Diru-laguntza (€)	Erakundea
2022-2023	Acompañamiento integral e interseccional de defensoras/es de DDHH en Colombia.	Bogota - Kolonbia	PBI Kolonbia	Proiektua guztira: 81.068,00 € Diru-laguntza: 59.988,00 €	Bartzelonako Udala
2023-2024	Acompañamiento integral para visibilizar y fortalecer la lucha del uso de terreno y territorio en Buenaventura y el movimiento DDHH en ciudades y territorios de Colombia.	Buenaventura - Kolonbia	PBI Kolonbia	Proiektua guztira: 148.808,88 € Diru-laguntza: 74.516,00 €	Bartzelonako Udala
2023-2024	Acompañando a las personas defensoras de DDHH, víctimas de violaciones, en México.	Mexiko	PBI Mexiko	Proiektua guztira: 105,281,80€ Diru-laguntza: 79.993,38 €	Bartzelonako Udala
2022-2024	Fortalecimiento organizativo, protección integral y cuidados a las personas defensoras de DDHH, en especial a las mujeres, en contextos de creciente criminalización y vulneración al estado de derecho agravado por la crisis ambiental en la región de Mesoamérica (Guatemala, Nicaragua y Honduras) y Colombia.	Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Kolonbia	PBI Guatemala, PBI Honduras, PBI Kolonbia, CUCG, CDM, CM8M	Programa guztira: 974.655,00€ Diru-laguntza: 899.813,00 €	ACCD – Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia
2023-2024	Memoria y justicia: acompañamiento internacional protector a organizaciones de familiares de víctimas, sobrevivientes y equipos jurídicos involucrados en casos de graves violaciones de derechos humanos cometidas en las épocas de los conflictos armados en Guatemala y Colombia.	Guatemala eta Kolonbia	PBI Guatemala, PBI Kolonbia	Programa guztira: 323.300,39€ Diru-laguntza: 292.842,00€	ACCD – Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia
2025 - 2028	Protección integral, fortalecimiento organizativo y cuidados a las personas defensoras de DDHH, en especial a las mujeres, en contextos de creciente cierre de espacios democráticos en la región de Mesoamérica (Guatemala, Nicaragua, México y Honduras) y Colombia	Guatemala, Kolonbia, Nikaragua, Mexiko eta Honduras	PBI Guatemala PBI Kolonbia PBI Nikaragua PBI Mexiko PBI Honduras Entrepueblos	Proiektua guztira: 1.076.547,41 Diru-laguntza: 959.792,00 €	ACCD – Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia
2025 - 2028	“Acompanyar per protegir: protecció integral de defensors a Mesoamèrica, Colòmbia i Filipines	Erdialdeko Amerika, Kolonbia eta Filipinak	IAP PBI Katalunia Associació Col·lectiu Mirada Colibrí.	Proiektua guztira: 744.358€ Diru-laguntza: 700.00,00 €	ACCD – Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia



PARTE HARTU

Urtean zehar hainbat topaketa eta prestakuntza birtual egin ditugu, PBIk egiten duen lanari eta giza eskubideen arloan ematen duen nazioarteko bidelaguntzari buruzko ezagutza indartzeko. Ekainean eta abenduan, **Acércate al acompañamiento internacional** izeneko bi webinar egin genituen, informazioa eta inspirazioa emateko eta, azken batean, jendea PBIren nazioarteko proiektuetan boluntario gisa parte hartzera motibatuzeko. Horietan, zehaztasunez azaldu

genuen PBIko boluntariotza zer den, nazioarteko laguntzak nola funtzionatzen duen eta boluntarioek Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen edo Mexikon egiten dituzten behaketa- eta babes-misioak zertan dautzan. Halaber, lan hori gidatzen duten balioak –indarkeriarik eza, elkartasuna eta bake-eraikuntza– nabarmendu genituen. Saio horietan, halaber, boluntarioek bete behar dituzten eskakizunak eta esperientzia argitu genituen, eta giza eskubideen aldeko borrokan pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileei laguntzeko motibazioa, erronkak eta ikaskuntzak hurbildu genizkien bertaratu ziren lagunei.





Instantzia horiei esker, interesa duten pertsonak gertutik ezagutu ahal izan dituzte gure lan egiteko modua, printzipioak eta gure jarduerak hainbat testuingurutan duten eragina. Gainera, giza eskubideen defentsan hausnarketa pizteko eta elkartasun-sareak indartzeko funtsezko eremuak izan dira.

PBIren parte izan nahi duzu giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzeko?

Hainbat bide dituzu:

Lekuan bertan brigadista izan

Kolonbian, Hondurasen, Guatemalan eta Mexikon ditugun brigadista taldeek laguntza ematen diete giza eskubideak defendatzen dituzten eta gizartea eraldatzeko lan egiten duten pertsonari, erakundeei eta komunitateei. Haiekin bat egin nahi baduzu, egon adi gure sare sozialei, deialdiak ezagutzeko eta eskaera egin ahal izateko.

PBI-EEren aktibista izan

PBIk Espainiako Estatuan egiten duen lana hainbat lurraldetan dauden pertsona konprometituei esker egiten da. Boluntarioek interes gehien pizten dieten jardueretan ematen dute beren



denbora eta ahalegina, hala nola, proiektuetatik itzultzen diren brigadistei bidelaguntza ematen, sentsibilizazio jarduerak antolatzen edo laguntza sareak koordinatzen. Informazio gehiago, hemen: voluntariado@pbi-ee.org

Ekarpen ekonomikoa egin edo PBIren bazkide izan

Pertsona asko konturatzen dira zein garrantzitsu den giza eskubideak defendatzeko lana, eta PBIk egiten duten babes-lanean lagundu nahi dute, baina ez dute aktiboki parte hartzeko denborarik. Ekarpenguztiak, zenbatekoa edozein dela ere, lagungarriak dira gure lana egiteko. Bazkideen aldizkako ekarpenei esker, alde aurretik planifika dezakegu, eta gure lana finantzatu ahal izango dugulako ziurtasuna dugu..

[Bazkide izan edo ekarpena egin nahi baduzu, hemen duzu aukeraí.](#)

Ongi etorriak dira energiaz eta motibazioz lagundu nahi duten lagun oro!



HARREMANETARAKO

Bulegoa

- **PBIren Espainiako Estatuko koordinazioa:**
coordinacion@pbi-ee.org
- **Administrazioa eta Finantzak:** admin@pbi-ee.org
- **Eragin Politikoa:** advocacy@pbi-ee.org
- **Sentsibilizazioa:** sensibilizacion@pbi-ee.org
- **Euskadiko Lurralde Ordezkaritza:** euskalherria@pbi-ee.org
- **PBIren Kataluniako teknikaria:** tecnica.catalunya@pbi-ee.org

www.pbi-ee.org

- Instagram: PBI-EE
- Facebook: PBI-Estado español
- Bluesky: pbi-ee.bsky.social
- Mastodon: pbi_ee@mastodon.social



**Brigadas
Internacionales
de Paz**